

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

5/2020 Foru Araua, maiatzaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren artean, Gasteizen bus elektriko adimenduna ezartzearen osagarri gisa, BEI/BEAren karga unitate funtzionalaren eraikuntza proiektua gauzatzeko izenpetutako hitzarmena berresteko

Arabako Batzar Nagusiek, Batzorde Iraunkor gisa eraturako Arautegi eta Barne Gobernu Batzordeak 2020ko maiatzaren 4an egindako bilkuran, ondoko foru araua onetsi dute:

5/2020 Foru Araua, maiatzaren 4koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren artean, Gasteizen bus elektriko adimenduna ezartzearen osagarri gisa, BEI/BEAren karga unitate funtzionalaren eraikuntza proiektua gauzatzeko izenpetutako hitzarmena berresteko.

Arabako Foru Aldundiak eskumenak baliatzen ditu toki erakundeei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematearen arloan, aipaturako 27/1983 Legearen 7 a) 5 artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideei dagokie trenbide eta tranbien gaineko eskumena, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikulua arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta haren lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, zeina, garraioen arloari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio Agintaritzari buruzko abenduaren 15eko 5/2003 Legean ezarritakoarekin osatzen baita, eta, berariaz trenbideei dagokienez, Euskal Trenbide Sareari buruzko maiatzaren 21eko 6/2004 Legean xedatutakoarekin.

Gasteizko Udalak, Estatuaren eta autonomia erkidegoaren legediari dagokienez, eskumenak baliatzen ditu arlo hauetan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2 artikulua eta g paragrafoen arabera: bidaiarien garraio kolektiboa, trafikoa, ibilgailuen aparkalekuak eta mugikortasuna, eta hirigintzako planeamendua, kudeaketa, egikaritzea eta diziplina. Halaber, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko tokiko erakundeentzat, dioenez, udallerrien berezko eskumenen artean daude hirigintza antolamendua, kudeaketa, burutzapena eta diziplina (17.1.9 artikulua); eta pertsonen garraio publikoaren hiri zerbitzuak antolatzea, planeatzea, programatzea, kudeatzea, diziplina ezartzea eta sustatzea, edozein garraiobideren bidez ere bakoitzaren udal mugartean ematen direnean (17.1.18 artikulua); hori egitea lege horretan xedatutakoari eta aplikatu beharreko legeriari egokitu beharko zaie.

2016ko ekainaren 1ean, lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak, Gasteizen garraio publikoaren eskaintza egokitzeko proiektuak prestatzeko, azken miliako garraiobide publiko kolektiboen sistema multimodal integratu eta erabat elektrifikatu bat sortzeko asmoz. BEI/BEA sistema ezartzeko eraikuntza proiektu horiek 2017an idatzi ziren, eta sistema horrek behar bezala funtzionatzeko eta autonomia izateko behar ziren instalazioak aurrekusi ziren. Zehatzago, eraikuntza proiektu horietan sartu eta definitu ziren autobusen karga eta bizi-ziklo egokia bermatzeko ezinbestekoak diren kotxetegiak karga motela egiteko beharrezkoak diren instalazio guztiak, nahiz eta egia den ez zela ezagutzen sistema hori kokatuko zen kotxetegiaren kokapen zehatza.

2018ko martxoaren 23an, lankidetzaren hitzarmena sinatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren artean, Gasteizen Bus Elektriko Adimenduna ezartzeko.

BEA sistema hartzeko eta jarduteko kotxetegiaren kokapen zehatza zehaztu ondoren, 2018ko maiatzaren 10ean, "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Gasteizen Bus Elektriko Adimenduna ezartzeko osagarria" sinatu zen. Hitzarmen horretan honako beharra jasotzen da: bus elektriko adimendunen sistemaren karga moteleko instalazioak kokatzeko diren kotxetegiaren eraikuntza proiektua idazteko beharra, alegia.

2019ko urrian amaitu da "Gasteizko BEI/BEAren kargako unitate funtzionalaren eraikuntza proiektua". Bertan, zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezko baldintzak jasotzen dira, bai eta 2017an idatzitako BEA sistema ezartzeko eraikuntza proiektuetan jasotako karga moteleko sistema hartzeko instalazioen definizio zehatza ere. Eraikuntza proiektu horren edukia BEA sistema ezartzeko eta behar bezala jarduteko helburuari erantzuten dio, bai eta karga moteleko instalazioak ezartzeko beharrezko egokitzapenari ere.

Horregatik, beharrezkoa da Gasteizen bus elektriko adimenduna ezartzeko jarduketara osagarriak egitea, administrazio sinatzaileen konpromisoaren artean Gasteizko BEI/BEAren kargako unitate funtzionalaren eraikuntza proiektua eta dagokion Obra Zuzendaritza eta Segurtasun eta Osasuneko Koordinazioa sartuta.

Hitzarmenak 5.902.426,88 euroko kostua dakar; horietatik, ehuneko 65 Eusko Jaurlaritzak finantzatuko du (3.836.577,48 euro).

Gasteizko Udalak ehuneko 17,5 finantzatuko du (1.032.924,70 euro), honako urteko hauetan: 2020an, 600.000,00 euro, eta 2021ean, 432.924,70 euro.

Arabako Foru Aldundiak, berriz, ehuneko 17,5 finantzatuko du (1.032.924,70 euro). Horretarako, Arabako Foru Aldundiaren Aurrekontuan esleitu behar da hura, urteko banaketa honen arabera: 600.000,00 euro 20.1.20 taldearen kontura eta 432.924,70 euro 20.3.21 taldearen kontura; indarreko aurrekontuan partida egokiak eta nahikoak daude horretarako.

Ondorioz, erakunde ordezkariak ados daude hitzarmen hau izenpetzearekin, hain zuzen, xede hau izango duena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaren artikulatzea, BEI-BEA (bus elektriko adimenduna) kargatzeko unitate funtzionalaren eraikuntza proiektua gauzatzeko zenbait jarduketa osagarri egin daitezkeen sustatzeko; horrela, Gasteizko hiriari autobus elektriko adimenduneko sistema bat eman ahalko zaio, hiriaren egungo 2. linea periferikoan, bai eta dagokion Obra Zuzendaritza eta Segurtasun eta Osasuneko Koordinazioa ere.

Azaldutakoagatik, agerian geratzen dira lankidetzaren onuragarritzat jotzen duten arrazoi tekniko eta ekonomikoak, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legeak, IV. kapituluaren baimena ematen die administrazio publikoei, bakoitzak bere eskumenen esparruan, hitzarmenak sinatzeko, baina horrek ez dakar berekin berezko eskumenak lagatzea.

Proiektu hori maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuko I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoari jarraituz izapidetu da (xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituena). Hitzarmen hau gauzatzean, berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudi eta programa esparruan agindutakoari jarraitzea proposatzen da (3/2007 Lege Organikoa, 4/2005 Legea, 29/2017 Foru Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana, Berdintasunerako IV. Foru Plana 2016-2020). Hitzarmen honen Jarraipen Batzordeari, Arabako Foru Aldundiko ordezkariaren bidez, genero azterketa egiteko eskatzen zaio.

Horiek horrela, lankidetzaz hitzarmena izenpetu beharra dago, klausuletan ezarritakoaren arabera, aldeek beren gain hartutako konpromisoak bete ditzaten, hitzarmeneko xedeak gauzatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko martxoaren 31n egindako bilkuran onetsi du lankidetzaz hitzarmen hori izenpetzea, bat etorritik Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearen abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.7 artikuluan ezarritakoarekin, eta 6.1.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Arabako Batzar Nagusiek akordio hori berretsiko dute.

ARTIKULU BAKARRA

Berresten da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren artean, Gasteizen bus elektriko adimenduna ezartzearen osagarri gisa, BEI/BEAren karga unitate funtzionalaren eraikuntza proiektua gauzatzeko izenpetutako hitzarmena, eranskinean jasotzen den agiriaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 4a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

LANKIDETZA HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA GASTEIZKO UDALAREN ARTEKOA, GASTEIZEN BUS ELEKTRIKO ADIMENDUNA EZARTZEAREN OSAGARRI GISA, BEI/BEA-REN KARGA UNITATE FUNTZIONALAREN ERAIKUNTZA PROIEKTUA GAUZATZEKO.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO, LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA Y EL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ DE COMPLEMENTARIEDAD A LA IMPLANTACIÓN DEL BUS ELÉCTRICO INTELIGENTE EN LA CIUDAD DE VITORIA-GASTEIZ PARA LA EJECUCIÓN DEL PROYECTO CONSTRUCTIVO DE UNIDAD FUNCIONAL DE CARGA DEL BEI/BEA.

Gasteiz, 2020koaren(a)

En Vitoria-Gasteiz a de de 2020

BILDU DIRA:

REUNIDOS:

M^a Aranzazu Tapia Otaegui andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburua.

Dña. M^a Aranzazu Tapia Otaegui, Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras del País Vasco.

Ramiro González San Vicente jauna, Arabako diputatu nagusia.

D. Ramiro González Vicente, Diputado General de Álava.

Gorka Urtaran Aguirre jauna, Gasteizko Udaleko alkate-lehendakaria, tokiko gobernu batzarrari laguntzeko organoaren titullarrak lagunduta.

D. Gorka Urtaran Aguirre, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, asistido por la titular del Órgano de Apoyo a la Junta de Gobierno Local.

PARTE HARTZEN DUTE:

INTERVIENEN:

M^a Aranzazu Tapia Otaegui andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkartzan. Ordezkaritza hori beteko du Gobernu Kontseiluak ... (e) koaren (e) (a) n hartutako erabakiaren ondorioz.

Doña M^a Aranzazu Tapia Otaegui, en representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Su representación deriva de acuerdo del Consejo de Gobierno de fecha... de ... de ...

Ramiro Gonzalez San Vicente jauna, Arabako Foru Aldundiko Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari

D. Ramiro Gonzalez Vicente, en ejercicio de la capacidad legal de representación de la Diputación Foral de Álava que le confiere la



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak Arabako Foru Aldundiaren ordezkartzen jarduteko ematen dion legezko gaitasuna baliatuz, eta, era berean, Foru Gobernu Kontseiluaren 2020ko martxoaren 31ko Erabakia betez.

Gorka Urtaran Aguirre jauna, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4.a) artikulua Gasteizko Udalaren ordezkartzen jarduteko ematen dion legezko gaitasuna baliatuz.

Parte hartzen duten guztiek LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

1.- Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.32 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, besteak beste, hauen gaineko eskumen eskusiboa: “Trenbideak, lehor, itsaso, ibai eta kablezko garraioak, portuak, heliportuak, aireportuak eta Euskal Herriko Meteorologi Zerbitzua, Konstituzioaren 149.1.20 artikulua erabakiari kalterik egiteke. Kontratazeko zentroak eta garraio arazoei dagokienez kargarako bukalekuak ere bai”. Era berean, Autonomia Estatutuaren 11-1 a) artikulua Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dio ingurumenaren eta ekologiaren arloko gaitan, besteak beste, Estatuaren oinarritzko legeria bere lurraldean garatzeko eta betearazteko eskumena.

Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagokie trenbideen eta tranbien arloko eskumena, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.32 artikulua

Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava, interviniendo, asimismo, en ejecución del acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de fecha 31 de marzo de 2020.

D. Gorka Urtaran Aguirre, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz que le confiere el artículo 124.4.a) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Todos los intervinientes se reconocen mutuamente capacidad legal para celebrar el presente CONVENIO DE COLABORACIÓN y, a tal efecto,

EXPONEN:

1.- Conforme a lo dispuesto en el artículo 10.32 de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma del País Vasco, entre otras, la competencia exclusiva en materia de «ferrocarriles, transportes terrestres, marítimos, fluviales y por cable, puertos, helipuertos, aeropuertos y Servicio Meteorológico del País Vasco, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.1.20 de la Constitución. Centros de contratación y terminales de carga en materia de transportes». Igualmente, el artículo 11-1 a) del Estatuto de Autonomía atribuye a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco el desarrollo legislativo y la ejecución dentro de su territorio de la legislación básica del Estado en las materias, entre otras, de medio ambiente y ecología.

Que corresponde a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia en materia de ferrocarriles y tranvías de conformidad con el citado



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

arabera, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6. artikuluekin lotuta ("Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremani buruzko Legea"), zeina osatzen baita garraioen inguruko gai honi dagokionez, abenduaren 15eko 5/2003 Legean, Euskadiko Garraio Agintaritzarenean, eta, bereziki, maiatzaren 21eko 6/2004 Legean, "Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide" erakunde Publikoaren, xedatutakoaren arabera.

Era berean, azaroaren 25eko 27/1983 Legeak 10. artikuluan ezartzen duenez, "Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei dagozkie errepideko garraio mekanikoen arloko legeria, arau-garapena, goi-kuskapena, plangintza eta koordinazioa, lurralde historikoek oraingo Arabak bere lurraldean dituen ahalmen eta izaera berarekin, Estatuarekin indarrean dauden hitzarmenen arabera".

2.- Arabako Foru Aldundiak eskumenak baliatzen ditu toki erakundeei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematearen arloan, aipatutako 27/1983 Legearen 7 a) 5 artikulua xedatutakoarekin bat etorritik, eta errepideko garraioen arloan, aipatutako 27/1983 Legearen 10. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

3.- Gasteizko Udalak, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko legediaren arabera, eskumenak ditu, besteak beste, bidaiarien garraio kolektiboaren arloan, trafikoan, ibilgailuen aparkalekuaren eta mugikortasunaren arloan, bai eta hirigintza plangintza, kudeaketa, exekuzio eta diziplinaren arloan ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2 artikuluko a) eta g) letren arabera. Era berean, 26.1.d) artikulua ezartzen du

artículo 10.32 del Estatuto de Autonomía para el País vasco en relación con el artículo 6 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de «Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos» (LTH) que se complementa, en lo que respecta a la materia de transportes, con lo establecido en la Ley 5/2003, de 15 de diciembre, de la Autoridad del Transporte de Euskadi y, en la específicamente ferroviaria, por lo dispuesto en la Ley 6/2004, de 21 de mayo, del Ente Público "Red Ferroviaria Vasca - Euskal Trenbide Sarea".

Asimismo, la citada Ley 27/1983, de 25 de noviembre, establece en su artículo 10 que «corresponden a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma las competencias de legislación, desarrollo normativo, alta inspección, planificación y coordinación en materia de transportes mecánicos por carretera, ejerciendo los Territorios Históricos las mismas facultades y con el mismo carácter que en el presente ostenta Álava, dentro de su territorio, de acuerdo con los convenios vigentes con el Estado».

2.- Que la Diputación Foral de Álava ejerce competencias en materia de asistencia y asesoramiento técnico a las entidades locales, conforme al artículo 7 a) 5 de dicha Ley 27/1983 y asimismo en materia de transportes por carretera, conforme a lo dispuesto en el artículo 10 de la citada Ley 27/1983.

3.- Que el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz ejerce, en los términos de la legislación del Estado y de la Comunidad Autónoma, competencias, entre otras, en materia de transporte colectivo de viajeros, tráfico, estacionamiento de vehículos y movilidad, planeamiento, gestión, ejecución y disciplina urbanística conforme al artículo 25.2, párrafos a) y g) de la Ley 7/85, reguladora de las Bases del Régimen Local. A su vez, el artículo 26.1.d) establece el transporte



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

bidaiarien hiriko garraio kolektiboa nahitaezko gutxieneko zerbitzua dela 50.000 biztanletik gorako udalerrientzat. Azkenik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezarritakoaren arabera, udalerrien berezko eskumenen artean honako hauek daude: hirigintza antolamendua, kudeaketa, exekuzio eta diziplina (17.1.9 artikulua) eta pertsonen garraio publikoko hiri zerbitzuak antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea, diziplinatzea eta sustatzea, garraio mota guztiak beren udal mugartean barruan egiten badira (17.1.18 artikulua); hori guztia egikaritzeko lana ezinbestean egokitu beharko da lege horretan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparrura.

4.- 2016ko ekainaren leian, lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak, Gasteizen garraio publikoaren eskaintza egokitzeko proiektuak prestatzeko, azken miliako garraibide publiko kolektiboen sistema multimodal integratu eta erabat elektrifikatu bat sortzeko asmoz.

5.- BEI/BEA sistema ezartzeko eraikuntza proiektu horiek 2017an idatzi ziren, eta sistema horrek behar bezala funtzionatzeko eta autonomia izateko behar ziren instalazioak aurreikusi ziren. Zehatzago, eraikuntza proiektu horietan sartu eta definitu ziren autobusen karga eta bizi-ziklo egokia bermatzeko ezinbestekoak diren kotxetegiakotako karga motela egiteko beharrezkoak diren instalazio guztiak, nahiz eta egia den ez zela ezagutzen sistema hori kokatuko zen kotxetegiaren kokapen zehatza.

colectivo urbano de viajeros como servicio mínimo obligatorio, para aquellos municipios con población superior a 50.000 habitantes. Por último, conforme a la Ley 2/2016 de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, entre las competencias propias de los Municipios se establecen las de ordenación, gestión, ejecución y disciplina urbanística (artículo 17.1.9) y las de ordenación, planificación, programación, gestión, disciplina y promoción de los servicios urbanos de transporte público de personas que, por cualquier modo de transporte, se lleven a cabo íntegramente dentro de sus respectivos términos municipales (artículo 17.1.18), cuyo ejercicio deberá adecuarse al marco de lo dispuesto en dicha ley y en la legislación que sea de aplicación.

4.-Que con fecha 1 de junio de 2016, se suscribió un Convenio de Colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para la redacción de proyectos para adecuar la oferta de transporte público en la ciudad de Vitoria-Gasteiz, mediante la generación de un sistema multimodal integrado e íntegramente electrificado de medios de transporte público colectivo y de última milla.

5.- Que la redacción de dichos proyectos constructivos para la implementación del sistema BEI/BEA se llevó a cabo en el año 2017 contemplando las instalaciones necesarias para el correcto funcionamiento y autonomía del mismo. Más concretamente, en dichos proyectos constructivos se incluyeron y definieron todas las instalaciones necesarias para la carga lenta en cocheras imprescindibles para asegurar la adecuada carga y ciclo de vida de los autobuses, si bien es cierto que se desconocía la ubicación exacta de las cocheras en las cuales se iba a ubicar dicho sistema.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



6.- 2018ko martxoaren 23an, lankidetzaz hitzarmena sinatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren artean, Gasteizen Bus Elektriko Adimenduna ezartzeko.

7.- BEA sistema hartzeko eta jarduteko kotxetegiak kokapen zehatza zehaztu ondoren, 2018ko maiatzaren 10ean, "Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Gasteizen Bus Elektriko Adimenduna ezartzeko osagarria" sinatu zen. Hitzarmen horretan honako beharra jasotzen da: bus elektriko adimendunen sistemaren karga moteleko instalazioak kokatuko diren kotxetegiak eraikuntza proiektua idazteko beharra, alegia.

8.- 2019ko urrian amaitu da "Gasteizko BEI/BEAren kargako unitate funtzionalaren eraikuntza-proiektua". Bertan, zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko beharrezko baldintzak jasotzen dira, bai eta 2017an idatzitako BEA sistema ezartzeko eraikuntza proiektuetan jasotako karga moteleko sistema hartzeko instalazioen definizio zehatza ere. Eraikuntza proiektu horren edukia BEA sistema ezartzeko eta behar bezala jarduteko helburuari erantzuten dio, bai eta karga moteleko instalazioak ezartzeko beharrezko egokitzapenari ere.

Horregatik, beharrezkoa da Gasteizen bus elektriko adimenduna ezartzeko jarduketarako osagarriak egitea, administrazio sinatzaileen konpromisoen artean Gasteizko BEI/BEAren kargako unitate funtzionalaren eraikuntza proiektua eta dagokion Obra Zuzendaritza eta Segurtasun eta Osasuneko Koordinazioa sartuta.

6.- Que con fecha 23 de marzo de 2018 se firmó un convenio de colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz para la implantación del Bus Eléctrico Inteligente en la ciudad de Vitoria-Gasteiz.

7.- Que una vez definida la ubicación exacta de las cocheras donde albergar y operar el sistema BEI, con fecha 10 de mayo de 2018, se firmó el "Convenio de Colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz de Complementariedad a la implantación del Bus Eléctrico Inteligente en la ciudad de Vitoria-Gasteiz", en el cual se recoge la necesidad de redactar el proyecto constructivo de cocheras donde se ubicarán las instalaciones de carga lenta del sistema de Buses Eléctricos Inteligentes.

8.- Que en octubre de 2019, se ha finalizado la redacción del "Proyecto Constructivo de Unidad Funcional de Carga del BEI/BEA de Vitoria-Gasteiz", en el cual se recogen los requisitos necesarios para garantizar la operatividad del servicio, así como la definición exacta de las instalaciones en las cuales albergar el sistema de carga lenta recogido en los proyectos constructivos de implantación del sistema BEI redactados en 2017. El contenido del mencionado proyecto constructivo responde a la finalidad de implantar y operar correctamente el sistema BEI, así como a la necesaria adecuación para la implantación de las instalaciones de carga lenta.

Por ello se hace necesaria la realización de actuaciones complementarias a la implantación del Bus eléctrico inteligente en Vitoria-Gasteiz incorporando entre los compromisos de las administraciones firmantes la ejecución del Proyecto Constructivo de Unidad Funcional de Carga del BEI/BEA de Vitoria-Gasteiz y su correspondiente Dirección de Obras y



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Coordinación de Seguridad y Salud.

Horrenbestez, ordezkaturako erakundeak ados daude hitzarmen hau sinatzearekin, eta, horregatik, eta dagozkien antolaketa arauetan horretarako ezarritako prozedura formalak bete ondoren, dokumentu hau formalizatzea erabaki dute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean, eta erakunde erkideen, foru aldundien eta udalen arteko harremanak arautzen dituzten xedapenetan xedatutakoarekin bat etorritik, xedapen horien eta klausula hauen arabera jardunez:

En consecuencia, las Instituciones representadas se muestran conformes con la suscripción de este Convenio y, por ello, previo cumplimiento de los procedimientos formales establecidos al efecto en sus respectivas normas de organización, acuerdan formalizar el presente documento, - conforme a lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, así como con las disposiciones que rigen las relaciones entre Instituciones Comunes, Diputaciones Forales y municipios-, rigiéndose de acuerdo a tales disposiciones y a las siguientes.

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea

Primera.- Objeto del Convenio

Hitzarmen honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzaz artikulatzea, BEI-BEA (bus elektriko adimenduna) kargatzeko unitate funtzionalaren eraikuntza proiektua gauzatzeko zenbait jarduketa osagarri egin daitezen sustatzeko; horrela, Gasteizko hiriari autobus elektriko adimenduneko sistema bat eman ahalko zaio, hiriaren egungo 2. linea periferikoan, bai eta dagokion Obra Zuzendaritza eta Segurtasun eta Osasuneko Koordinazioa ere.

El objeto del presente convenio es articular la colaboración entre la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, a fin de promover la realización de diversas actuaciones complementarias para la ejecución del Proyecto Constructivo de Unidad Funcional de Carga del BEI-BEA (bus eléctrico inteligente) a fin de dotar a la ciudad de Vitoria-Gasteiz de un sistema de bus eléctrico inteligente en la actual línea 2 periférica de la ciudad y de su correspondiente Dirección de Obras y Coordinación de Seguridad y Salud.

Bigarrena.- Administrazioen betebeharrak hitzarmenaren xedeari, garapenari eta finantzaketari dagokienez.

Segunda.- Obligaciones de las Administraciones en orden al objeto, desarrollo y financiación del Convenio.

Gasteizko BEI-BEA (bus elektriko adimenduna) kargatzeko unitate funtzionalaren eraikuntza-proiektuaren hasieran kalkulaturako kostua 5.599.926,88

El coste inicialmente estimado de la ejecución del Proyecto Constructivo de Unidad Funcional de Carga del BEI-BEA (bus eléctrico inteligente) de Vitoria-Gasteiz



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

eurokoa da (BEZa barne). Halaber, Obra Zuzendaritzak eta Segurtasun eta Osasun Koordinazioak Eraikuntza Proiektu hori gauzatzeko izango duten kostua 302.500,00 eurokoa izango da (BEZa barne).

A) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Finantzatzea, 2019ko ekitaldirako behar diren aurrekontu esleipenak egin ondoren, Gasteizko BEI-BEA (bus elektriko adimenduna) kargatzeko unitate funtzionalaren eraikuntza proiektuaren burutzapenaren eta Obra Zuzendaritzaren eta Segurtasun eta Osasuneko Koordinazioaren kostuaren ehuneko 65. Hasieran kalkulaturako aurrekontuaren arabera, beraz, 3.836.577,48 euro izango dira, 20.1.1.03.42.0300.1.722.01.51311.001.K aurrekontu aplikazioaren kontura eta honako urteko honekin:

- 2020: 3.836.577,48 €

B) Arabako Foru Aldundiak bere gain hartzen du:

Finantzatzea, 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako behar diren aurrekontu esleipenak egin ondoren, Gasteizko BEI-BEA (bus elektriko adimenduna) kargatzeko unitate funtzionalaren eraikuntza proiektuaren burutzapenaren eta Obra Zuzendaritzaren eta Segurtasun eta Osasuneko Koordinazioaren kostuaren ehuneko 17,5. Hasieran kalkulaturako aurrekontuaren arabera, beraz, 1.032.924,70 euro izango dira, 20.1.20 50201 5401 7629002 eta 20.3.21 50201 5401 7629002 aurrekontu aplikazioen kontura eta honako urteko hauekin:

- 2020: 600.000,00 €
- 2021: 432.924,70 €

asciende a la cantidad de 5.599.926,88 € euros (IVA incluido). Asimismo, el coste de la Dirección de Obras y Coordinación de Seguridad y Salud para la ejecución del citado Proyecto Constructivo asciende a la cantidad de 302.500,00 (IVA incluido).

A) La Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco se compromete a:

1. Financiar, previas las consignaciones presupuestarias necesarias, para el ejercicio 2019, el 65% del coste de la ejecución del Proyecto Constructivo de Unidad Funcional de Carga del BEI-BEA (bus eléctrico inteligente) de Vitoria-Gasteiz y del coste de la Dirección de Obras y Coordinación de Seguridad y Salud. De acuerdo al presupuesto inicialmente estimado, serían por tanto 3.836.577,48 €, con cargo a la aplicación presupuestaria 20.1.1.03.42.0300.1.722.01.51311.001.K. y con la siguiente anualidad:

- 2020: 3.836.577,48 €

B) La Diputación Foral de Álava se compromete a:

Financiar, previas las consignaciones presupuestarias necesarias, para los ejercicios 2020 y 2021, el 17,5% del coste de la ejecución del Proyecto Constructivo de Unidad Funcional de Carga del BEI-BEA (bus eléctrico inteligente) de Vitoria-Gasteiz y del coste de la Dirección de Obras y Coordinación de Seguridad y Salud. De acuerdo al presupuesto inicialmente estimado, serían por tanto 1.032.924,70 €, con cargo a las aplicaciones presupuestarias 20.1.20 50201 5401 7629002 y 20.3.21 50201 5401 7629002, y con las siguientes anualidades:

- 2020: 600.000,00 €
- 2021: 432.924,70 €



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

C) Gasteizko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Finantzatzea, 2020ko eta 2021eko ekitaldiarako behar diren aurrekontu esleipenak egin ondoren, Gasteizko BEI-BEA (bus elektriko adimenduna) kargatzeko unitate funtzionalaren eraikuntza proiektuaren burutzapenaren eta Obra Zuzendaritzaren eta Segurtasun eta Osasuneko Koordinazioaren kostuaren ehuneko 17,5. Hasieran kalkulaturako aurrekontuaren arabera, beraz, 1.032.924,70 euro izango dira, 2020/1521.4413.62701 “Kotxetegiak BEA”, 2021/1521.4413.62701 “Kotxetegiak BEA” eta 2021/1520.02.1533.6098 “Espazio publikoko inbertsioen plan zuzentzailea” aurrekontu aplikazioen kontura eta honako urteko hauekin:

- 2020: 600.000,00 €
- 2021: 432.924,70 €

2. BEI-BEA (bus elektriko adimenduna) kargatzeko unitate funtzionalaren eraikuntza proiektua eta dagokion Obra Zuzendaritza eta Segurtasunaren eta Osasunaren Koordinazioa lizitatzea eta gauzatzea, Gasteizko gaur egungo 2. linea periferikoan.

Hirugarrena.- Lanen finantzaketa eta ordainketa

1. Gasteizko Udalak kontratazio espedienteak onartu aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Arabako Foru Aldundiak ziurtagiriak bidaliko dizkiote Udalari, bere gain hartzen dituen finantza konpromisoak betetzeko kreditu egokia eta nahikoa dagoela egiaztatzeko.

C) El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se compromete a:

1. Financiar, previas las consignaciones presupuestarias necesarias, para los ejercicios 2020 y 2021, el 17,5% del coste de la ejecución del Proyecto Constructivo de Unidad Funcional de Carga del BEI-BEA (bus eléctrico inteligente) de Vitoria-Gasteiz y del coste de la Dirección de Obras y Coordinación de Seguridad y Salud. De acuerdo al presupuesto inicialmente estimado, serían por tanto 1.032.924,70 €, con cargo a las aplicaciones presupuestarias 2020/1521.4413.62701 “Cocheras BEI” y 2021/1521.4413.62701 “Cocheras BEI” 2021/1520.02.1533.6098 “Plan Director de Inversiones de Espacio Público”, con las siguientes anualidades:

- 2020: 600.000,00 €
- 2021: 432.924,70 €

2. Licitat y ejecutar las actuaciones para la ejecución del Proyecto Constructivo de Unidad Funcional de Carga del BEI-BEA (bus eléctrico inteligente) y la correspondiente Dirección de Obras y Coordinación de Seguridad y Salud en la actual línea 2 periférica de la ciudad de Vitoria-Gasteiz.

Tercera.- Financiación y pago de los trabajos

1. Con anterioridad a la aprobación de los expedientes de contratación por parte del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Diputación Foral de Álava remitirán al Ayuntamiento los certificados que acrediten la existencia del crédito adecuado y suficiente para la cobertura de los compromisos financieros que asume.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

2. Udalaren kontratazio organoak onartuko ditu esleipen prezioan eragin ekonomikoa duten kontratu gorabeherak, baldin eta horien zenbateko metatuak ez badu gainditzen bigarren klausulan adierazitako kostua, erakunde horrek gorabehera horiei buruzko txostena Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeari egin eta Batzorde honen aldeko txostena jaso ondoren.

3. Gorabeheren zenbateko metatuak bigarren klausulan adierazitakoa gainditzen duenean, hiru alderdi finantzatuileek alde zuzenetik aho batez adostu beharko dute hori onartzea, bai eta behar diren kredituak gaitzea ere, partaidetza ehunekoak kontuan hartuta.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Arabako Foru Aldundiak Gasteizko Udalari egin beharreko ordainketak egin aurretik, dagozkion obrak eta lanak egin direla egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira, bai eta egin beharreko ordainketak ere (ziurtagirien eta fakturen kopia konpultsatua). Agiri horietan, erakunde bakoitzari guztizkoaren zer zati dagokion adierazi beharko da, eta erakunde horiek nahitaez sartu beharko dute dagokion kontuan, horretarako ezarritako epean. Hilabeteko epea, aurrez aipatutako dokumentazioa jasotzen denetik.

5. Dagokion ekarpena jaso eta gehienez ere hilabeteko epean, Udalak fakturen ordainketa justifikatzen duten agiriak bidaliko dizkie beste bi alderdi sinatzaileei.

6. Eskualde Garapenerako Europar Funtsarekin (EGEF) batera finantzatzea. Arabako Foru Aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak hitzarmen honi egiten dizkieten

2. Las incidencias contractuales que, en su caso, se produzcan con repercusión económica sobre el precio de adjudicación, cuyo importe acumulado no exceda del coste señalado en la cláusula segunda serán aprobados por el órgano de contratación del Ayuntamiento, previo informe de esta entidad de dichas incidencias a la Comisión de Seguimiento del Convenio e informe favorable de esta Comisión.

3. Cuando el importe acumulado de las incidencias llegue a superar el señalado en la cláusula segunda, su aprobación requerirá el previo acuerdo por unanimidad de las tres partes financiadoras así como la habilitación de los créditos necesarios en atención a sus porcentajes de participación.

4. Los abonos que corresponda realizar por la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y por la Diputación Foral de Araba al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se harán efectivos previa presentación de la documentación acreditativa de la realización de las correspondientes obras y trabajos así como de los pagos a realizar (copia compulsada de las certificaciones, de las facturas), donde se indicará la parte que del total corresponde a cada institución, quedando éstas obligadas a su ingreso en la cuenta que, al efecto, se establezca en el plazo de un mes desde la recepción de la documentación anteriormente indicada.

5. En el plazo máximo de un mes desde la recepción de la correspondiente aportación, el Ayuntamiento remitirá a las otras dos partes firmantes los documentos justificativos del pago de las facturas.

6. Cofinanciación con Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER). Las aportaciones a este convenio por parte de la Diputación Foral de Álava y la Administración General de la Comunidad del



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

ekarpenak Eskualde Garapenerako Europar Funtsak finantzatzen ditu, ehuneko 50ean, Euskadiko 2014-2020 EGEF Programa Operatiboaren esparruan, 4. helburu tematikoan: "Sektore guztietan karbono gutxiko ekonomia batera igarotzen laguntzea". Gasteizko Udala (kofinantzatutako proiektua lizitatzen eta gauzatzen duen erakunde kudeatzailea eta haren onuraduna den aldetik) kofinantzaketa horretatik eratorritako prozedurak, araudia eta betebeharrak betetzearen mende egongo da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, bai eta Programako bi Bitarteko Erakundeek (Eusko Jaurlaritza eta Arabako Foru Aldundia) kudeaketa sistemen mende ere.

Laugarrena.- Kontuen egoera eta beteazpena.

Erakunde kofinantzaileetako batek hala eskatzen duenean, Udalak konpromisoa hartzen du proiektuaren exekuzio kontuen egoera eta proiektuarekin lotuta garrantzitsuak diren gorabehera guztien azalpen memoria bidaltzeko, batez ere dokumentu honetan aurrekontuan jasotakoarekin alderatuta kostuan atzerapena edo gehikuntza eragin dezakeen edozein zirkunstantzia.

Bosgarrena.- Jarraipen Batzordea

Hitzarmen hau sinatzen duten erakundeek Jarraipen Batzordea eratuko dute, erakundeek izendatutako bina ordezkari osatua, hitzarmena behar bezala betetzen dela ikuskatzeko. Batzorde horretako lehendakaria Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkarietako bat izango da, eta idazkaria, berriz, Gasteizko Udalak izendatutako ordezkarietako bat.

País Vasco están cofinanciadas al 50% por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional en el marco del Programa Operativo del País Vasco FEDER 2014-2020, en el Objetivo Temático 4 "Favorecer el paso a una Economía Baja en Carbono en todos los sectores". El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (como Organismo Gestor que licita y ejecuta el proyecto cofinanciado, y beneficiario del mismo) estará sujeto al cumplimiento de los procedimientos, normativa y obligaciones derivadas de dicha cofinanciación, según lo dispuesto en el Reglamento (UE) 1303/2013 del Parlamento Europeo y Consejo de 17 de diciembre de 2013, y a los sistemas de gestión de los dos Organismos Intermedios del Programa (Gobierno Vasco y Diputación Foral de Álava).

Cuarta.- Estado de cuentas y ejecución.

Cuando así lo solicite alguna de las Instituciones cofinanciadoras, el Ayuntamiento se compromete a remitir el estado de cuentas de ejecución del proyecto y una memoria explicativa de cuantas incidencias sean relevantes con relación al proyecto, fundamentalmente cualquier circunstancia que pueda provocar un retraso o incremento en el costo del mismo respecto a lo presupuestado en el presente documento.

Quinta.- Comisión de Seguimiento

Las instituciones firmantes del presente Convenio crearán una Comisión de Seguimiento, formada por dos representantes designados por cada una de ellas, para la supervisión del buen cumplimiento del mismo. La Presidencia de dicha Comisión será asumida por uno de los representantes de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y su Secretaria por uno de los representantes designados por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Batzorde horrek eginkizun hauek izango ditu:

a) Kasu bakoitzean eskatutako izapideen azkartasuna oztopatzen duten oztupoak kentzen laguntzea.

b) Hitzarmen honen xede diren jarduerak betetzen direla bermatzeko behar diren neurriak proposatzea eta horiei buruzko txostenak egitea.

c) Hitzarmen honetan aurreikusitako jardueren gauzatzeko normalaren jarraipena egitea, elkarri informazioa emateko eta konpromisoak behar bezala betetzeko irizpideak eta moduak zehaztuta.

d) Saiatzea konpontzen hitzarmen honek ekar ditzakeen interpretazio eta exekuzio arazoak.

Hitzarmen hau indarrean den bitartean, alderdietako edozeinek proposatuta, batzordeak bilera egingo du jardunak behar bezala gauzatzeko beharrezkoa den guztietan. Batzordearen bileretan kide guztiek egon beharko dute, eta guztiek aho batez onartuta hartuko dira erabakiak.

Hitzarmen honetan Jarraipen Batzordearentzat berariaz aurreikusi ez den gutzirako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren leko 40/2015 Legearen atariko tituluaren II. kapituluaren 3. atalean araututako kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

Seigarrena.- Araubide juridikoa

Hitzarmen hau administratiboa da, eta interpretatzeko eta garatzeko, administrazio publikoen arteko akordioei aplikatu dakiekeen

Dicha Comisión desempeñará las siguientes funciones:

a) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

b) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente Convenio.

c) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente Convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

d) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear este Convenio.

Durante la vigencia de este Convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la Comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones. El quórum de asistencia a las sesiones de la Comisión requerirá la presencia de todos sus miembros y la adopción de acuerdos será por unanimidad de los mismos.

En lo no previsto expresamente en este Convenio para la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la sección 3ª del capítulo II del Título preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Sexta.- Régimen Jurídico

El presente Convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

ordenamendu juridiko-administratiboari jarraituko dio, bereziki Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren V. kapituluan xedatutakoari, eta alderdiek berariaz men egingo diote administrazioarekiko auzien jurisdikzioari.

Administrazio publikoen kontratuei buruzko legeriaren aplikagarritasunari dagokionez, legeria horretatik kanpo geratzen da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, hargatik eragotzi gabe haren printzipioak aplikatzea sor litezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko.

Hitzarmen honek edo haren betearazpenak sor ditzaketen interpretazio arazoak Jarraipen Batzordeak ebartziko ditu, aurreko klausulan adierazitakoaren arabera, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa eskuduna izango da gai horien inguruan sortzen diren auzien inguruan sortzen diren eztabaidak ezagutzeko.

Zazpigarrena.- Partaideen eskumenak errespetatzea

Hitzarmen hau sinatzeak ez du ekarriko esku hartzen duten alderdien eskumenei uko egiterik edo eskumen horiek aldatzerik, eta hitzarmenaren ondorioz hartzen dituzten konpromisoei datzekien erantzukizunak bakarrik izango dituzte.

Zortzigarrena.- Hitzarmena aldatzea

Hitzarmen hau aldatu ahal izango da, alderdi sinatzaile guztiek aho batez hartutako erabakiaren bidez.

ordenamiento jurídico administrativo aplicable a los acuerdos entre administraciones públicas, en particular por lo dispuesto en el Capítulo V del Título Preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, con expreso acatamiento de las partes a la jurisdicción contencioso-administrativa.

Con respecto a la aplicabilidad de la legislación de contratos de las Administraciones Públicas, la misma queda excluida, de conformidad con el artículo 6.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, sin perjuicio de que sus principios se apliquen para resolver las dudas y lagunas que pudieran plantearse.

La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente Convenio o su ejecución será resuelta por la Comisión de Seguimiento según lo referido en la cláusula anterior; siendo competente la Jurisdicción Contencioso Administrativa para conocer cuántas controversias litigiosas se susciten en relación con estas cuestiones.

Séptima.- Respeto de las competencias de las partes intervinientes

La firma de este Convenio no supone renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

Octava.- Modificación del convenio

El presente convenio podrá ser objeto de modificación, mediante acuerdo adoptado por unanimidad entre todas las Partes firmantes.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Bederatzigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia eta suntsiarazpena

Hitzarmen honek ondorioak izango ditu eta parte hartzen duten alderdiak behartuko ditu sinatzen denetik; halaber, 3 urteko iraupena izango du sinatzen denetik zenbatzen hasita.

Hitzarmenaren indarraldia igaro ondoren egiaztatuko da hitzarmenaren azkentzea. Era berean, hitzarmena suntsiarazi ahal izango da, alderdi sinatzaile guztiek aho batez hala erabakitzen badute, haren xede diren jarduketak bete ondoren, edo hura suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikulua ezarritakoarekin bat etorritz.

Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak beste hitzarmena suntsiaraztea eska dezake. Suntsiaraziz gero, 40/2015 Legearen 52. artikuluan ezarritako ondorioak sortuko dira, eta, hala badagokio, alderdiek zehaztuko dituzte gauzatzen ari diren jarduerak amaitzeko baldintzak.

Adostutakoa behar bezala jasota gera dadin, eta ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmen honen hiru ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako egunean eta tokian, eta euskaraz eta gaztelaniaz, biak ala biak bertsio ofizialak direnez gero.

Novena.- Vigencia y resolución del Convenio

El presente Convenio surtirá efectos y obligará a las partes intervinientes desde su firma y tendrá una duración de 3 años desde dicha firma.

La extinción del convenio se verificará tras el transcurso del plazo de su vigencia. A su vez, podrá procederse a su resolución mediante acuerdo unánime de todas las Partes firmantes singularmente, una vez se dé cumplimiento a las actuaciones que constituyen su objeto, o bien por incurrir en causa de resolución del mismo, de acuerdo con lo establecido en el artículo 51 de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, se producirán los efectos establecidos en el artículo 52 de la Ley 40/2015 y en su caso las partes determinarán las condiciones para la finalización de las actividades que se hallen en ejecución.

Para la debida constancia de lo acordado, y en prueba de conformidad, las partes firman este Convenio, por triplicado ejemplar, en la fecha y lugar expresados en el encabezamiento y en los idiomas euskera y castellano, siendo ambas versiones oficiales.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



*EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN IZENEAN
POR LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS
VASCO*

M^a Aranzazu Tapia Otaegui

*ARABAKO FORU ALDUNDIAREN IZENEAN
POR LA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA*

Ramiro González San Vicente

*GASTEIZKO UDALAREN IZENEAN
POR EL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ*

Gorka Urtaran Aguirre